| | | |
|---|---|---|
| **ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN AGIRIA, ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO** | | **PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS QUE REGIRÁN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS LABORES DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE LAS MULTAS DE TRÁFICO Y OTA (RECAUDACIÓN VOLUNTARIA Y EJECUTIVA), ASÍ COMO LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y DE OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS.** |
| **KONTRATUAREN KLAUSULAK:** | | **CLAUSULAS DEL CONTRATO:** |
| **XEDAPEN OROKORRAK** | | **DISPOSICIONES GENERALES** |
| **1. klausula. Araubide juridikoa** | | **Cláusula 1.- Régimen jurídico** |
| Agiri honek arautzen duen kontratua, 2017ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (aurrerantzean SPKL) 25. artikuluaren arabera, administratiboa da. Kontratuaren prestakuntzari, esleipenari, eraginei eta iraungipenari dagokionez, aipaturiko artikuluan aurreikusi gabekoetan, kontratazioari buruzko estatuko oinarrizko legeria bete beharko du: lehenik, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (aurrerantzean SPKL), zeinak estatuko ordenamendu juridikora ekartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak; bigarrenik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua, baldin eta SPKLren kontrakoa ez bada; hirugarrenik, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta azkenik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. Osagarri gisa aplikatu dira oinarrizkoak ez diren estatuko kontratazioari buruzko arauak, administrazio-zuzenbideari buruzko gainerako arauak eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuari | | El contrato que regula el presente pliego tiene carácter administrativo conforme a lo señalado en el artículo 25 de la LCSP 2017 y se regirá , en cuanto a su preparación, adjudicación, efectos y extinción, en lo no previsto en el mismo por la legislación básica del Estado en materia de contratación: la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, en adelante LCSP, por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de Octubre, en cuanto no se oponga a lo establecido en la LCSP, en adelante RGLCAP y por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público y por la de Régimen Local, aplicándose, supletoriamente las normas estatales sobre contratación que no tengan carácter básico, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado. |

| | |
|---|---|
| buruzkoak. | |
| Alderdiek agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoa bete behar dute; agiri horiek kontratuzkoak izango dira. | Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en el presente pliego y en el pliego técnico, que revestirán carácter contractual. |
| Agiri hau eta kontratuzko gainerako dokumentazioa bat ez badatoz, agiri hau nagusituko da. | En caso de discrepancia entre el presente pliego y el resto de documentación que reviste carácter contractual, prevalecerá el presente pliego. |
| **2. klausula. Esleitzeko prozedura, espedientea izapidetzeko modua eta kontratazio-organoa** | **Cláusula 2.- Procedimiento de adjudicación, forma de tramitación del expediente y órgano de contratación** |
| Kontratua ez dago erregulazio bateratuaren mende (2017ko SPKLko 22. artikulua) eta prozedura irekia medio esleituko da. | El contrato no se encuentra sujeto a regulación armonizada (art. 22 LCSP 2017) y se adjudicará mediante procedimiento abierto. |
| CPV kodeak: | Código CPV: |
| 75100000-7: herri-administrazioko zerbitzuak.<br>75130000-6: botere publikoei laguntzeko zerbitzuak. | 75100000-7: servicios de administración pública<br>75130000-6: servicios de apoyo a los poderes públicos |
| Kontratazio-organoa: Tokiko Gobernu Batzarra. Alkateak eskuordetu du, aurrekontua egikaritzeko oinarrien bitartez, 60.100,00 euro baino gehiagoko gastuak xedatzeko. | Órgano de contratación: Junta de Gobierno Local. Delegación efectuada por el Alcalde a través de las bases de ejecución del presupuesto, para disposición de gastos superiores a 60.100,00 €. |
| **3. klausula.- Kontratuaren premia eta egokitasuna eta kontratazioaren eraginkortasuna** | **Cláusula 3.- Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.** |
| Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan justifikatu dira, 2017ko SPKLko 28. artikuluari jarraikiz, helburu instituzionalak, kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko eta kontuan hartutako faktore guztiak. | En la documentación preparatoria del presente contrato se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la LCSP 2017 los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el mismo, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta. |
| **4. klausula. Kontratuaren xedea** | **Cláusula 4.- Objeto del contrato.** |
| **Agiri hau oinarri hartuta gauzatzen den kontratuaren xedea izango da** ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO | **El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la prestación de** LAS LABORES DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE LAS MULTAS DE |

BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA gauzatzea, agiri teknikoan ezarritako zehazpenei jarraikiz.

**5. klausula. Gauzatzeko epea**

SPKLko 29. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, kontratu honek **URTEBETE** iraungo du, **2018ko irailaren 5etik kontatzen hasita**, eta beste bi urterako luzatu ahal izango da. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta kontratazio-organoak adostu beharko ditu berariaz. Enpresaburuarentzat derrigorrezkoak izango dira, baldin eta aurreabisua kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago ematen bada.

**6. klausula. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren gutxi gorabeherako balioa**

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (100. artikulua)

Kontratuaren prezioa hasieran ezin da kuantifikatu, esleipendunak egindako lanen eta gauzatutako kudeaketa eta zerbitzuen emaitza zehatzen arabera sortuko da.

Kalkuluak egiteko honako datu hauek har daitezke oinarritzat:

- Zirkulazioko eta OTAko isunen borondatezko bilketaren zenbatekoa hau izan da azken bi ekitaldietan:

2016. Eskubide onartuak: 320.215,77 € / Kobrantzak: 153.660,00 €
2017. Eskubide onartuak: 323.640,95 € / Kobrantzak: 168.090,00 €

- Nahitaezko bilketa hau izan da azken bi ekitaldietan:

TRÁFICO Y OTA (RECAUDACIÓN VOLUNTARIA Y EJECUTIVA), ASÍ COMO LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y DE OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS, de conformidad con las especificaciones indicadas en el pliego técnico.

**Cláusula 5.- Plazo de ejecución**

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el art. 29 de la Ley de Contratos del Sector Público, el plazo de duración del presente contrato será de **1 AÑO a contar desde el 5 de septiembre de 2018**, y podrá ser prorrogado por otros dos años más. Las prórrogas serán anuales y deberán ser acordadas expresamente por el órgano de contratación. Serán obligatorias para el empresario, siempre que su preaviso se produzca con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato.

**Cláusula 6.- Presupuesto base de licitación y valor estimado del contrato**

PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN (art. 100)

El precio del contrato que inicialmente no puede ser cuantificado, se devengará en función de los trabajos realizados y de los resultados concretos que se obtengan por las gestiones y servicios llevadas a cabo por el adjudicatario.

A efectos de cálculo se indica que:

- La recaudación en vía voluntaria de las multas de tráfico y OTA, en los 2 últimos ejercicios ha sido:

2016.- Derechos reconocidos: 320.215,77 € / Cobros: 153.660,00 €
2017.- Derechos reconocidos: 323.640,95 € / Cobros: 168.090,00 €

- La recaudación en vía ejecutiva en los 2 últimos ejercicios ha sido:

| | |
|---|---|
| 2016. Printzipala: 210.576,66 € / Berandutze-interesak: 14.345,61 €<br>2017. Printzipala: 185.454,94 € / Berandutze-interesak: 10.949,27 € | 2016.- Principal : 210.576,66 € / Intereses de demora: 14.345,61 €<br>2017.- Principal: 185.454,94 € / Intereses de demora: 10.949,27 € |
| Lan horregatik honako hau jasoko du: | Por dicha labor percibirá: |
| A) Borondatezko bilketa: | A) <u>Recaudación en vía voluntaria</u>: |
| A.1. Kobratutakoaren % 35, gehienez. | A.1.- Hasta el 35% de lo cobrado. |
| B) <u>Nahitaezko bilketa:</u> | B) <u>Recaudación en vía ejecutiva</u>: |
| B.1. Eskudirutan kobratutako zenbatekoen printzipalaren % 20, gehienez, BEZ gabe. | B.1.- Hasta el 20% sobre el principal de las cantidades cobradas en metálico, excluido IVA. |
| B.2. Epe exekutiboan eskudirutan kobratutako berandutze-interesen % 40, gehienez (BEZ gabe), esleipendunak kalkulatzeko, likidatzeko, jakinarazteko eta kobratzeko egindako kudeaketa-lanen ordain gisa. | B.2.- Hasta el 40% de los intereses de demora cobrados en metálico en período ejecutivo, en concepto de contraprestación por la gestión realizada por el adjudicatario para su cálculo, liquidación, notificación y cobro (IVA excluido). |
| B.3. Gauzaz kobratuz gero, jasotzeko zenbatekoa aurreko portzentajeak aplikatuz dagokiona izango da, baina bi kontzeptuen baturaren muga maximoa 18.000,00 euro izango da (BEZ gabe). | B.3.- En caso de que el cobro se produzca en especie, el importe a percibir será el correspondiente al obtenido por aplicación de los porcentajes anteriores, pero con el límite máximo por las suma de ambos conceptos, de 18.000,00 euros (IVA excluido). |
| Kostuen zenbatekoak Udalaren kontura izango dira. | Los importes en concepto de costas correrán a cargo del Ayuntamiento. |
| <u>KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA (101. artikulua)</u> | <u>VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO (art. 101)</u> |
| Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa 79.113,50 euro da, BEZ gabe. Kontratuaren zenbateko osoa, balizko luzapenak barne: 237.340,50 euro (BEZ gabe). | El valor estimado anual del contrato es de 79.113,50 €, sin IVA. Importe total del contrato incluidas eventuales prórrogas: 237.340,50 € (sin IVA). |
| **7. klausula. Finantziazioa** | **Cláusula 7.- Financiación** |
| Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantziazioa dago aurreikusia aurtengo aurrekontuko 0110.227.932.00.09 partidan, zehazki 100.000,00 eurokoa. Betiere, Udalak kontratua gauzatzeko betekizun ekonomikoak betetzeko bitarteko nahikoa jarriko ditu aurrekontuan. | Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación en la partida 0110.227.932.00.09 con un importe de 100.000,00 € con cargo al presupuesto del año en curso, y en su caso el Ayuntamiento se compromete a consignar presupuestariamente los recursos necesarios |

| | | |
|---|---|---|
| | | para atender las obligaciones económicas que se deriven de la ejecución del contrato. |
| **8. klausula. Ordaintzeko modua** | | **Cláusula 8.- Forma de pago** |
| Udalak hilero ordainduko dizkio esleipendunari aurreko hilabetean egindako laguntza-zerbitzuak, dagokien frogagiria jaso eta onetsi ondoren. Hileko faktura horien edukia laugarren klausulan adierazitako unitateetan banakatu behar da. | | El Ayuntamiento abonará mensualmente al adjudicatario la cantidad correspondiente a los servicios de asistencia realizados durante el mes anterior, contra la presentación y conformidad del correspondiente documento probatorio. El contenido de estas facturas mensuales deberá desglosarse en las distintas unidades que se indicaban en la cláusula cuarta. |
| **9. klausula. Prezioak berrikustea** | | **Cláusula 9.- Revisión de precios** |
| Ez da prezioak berrikustea zehaztu, ordaina emateko prozedura dela eta. | | No se establece revisión de precios debido al procedimiento de determinación de la contraprestación. |
| **10. klausula. Bermeak** | | **Cláusula 10.- Garantías** |
| Behin-behineko bermea: | | Garantía provisional: |
| ez da behar. | | No se exige. |
| Behin betiko bermea: | | Garantía definitiva: |
| Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako betekizunak beteko dituela ziurtatzeko, esleipenaren zenbatekoaren % 5eko (BEZ gabe) behin betiko bermea eratu behar du. | | La empresa adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligada a constituir una garantía definitiva igual al 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA. |
| 2017ko SPKLko 150.2 artikuluari jarraikiz, bermea hamar egun baliodunen buruan eratu behar da, kalitatearen eta prezioaren arabera eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea eratzeko 2017ko SPKLko 108. eta 109. artikuluetan ezarritako edozein baliabide erabil daiteke. Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 110. artikuluan zehaztutako kontzeptuetarako izango da. | | De conformidad con lo dispuesto en el art. 150,2 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017, el plazo para la constitución de la citada garantía será de diez días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que el licitador que haya presentado la mejor oferta calidad-precio, hubiera recibido el requerimiento, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 y 109 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017. La garantía definitiva responderá de los conceptos mencionados en el art. 110 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017. |
| Bermea bueltatuko da (osorik edo parte bat) 2017ko SPKLko 111. artikuluan zehaztutakoari | | La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo |

| | | |
|---|---|---|
| jarraikiz, behin bermearen epea amaitzen denean eta esleipendunak kontratuko betebehar guztiak betetzen dituenean. | | dispuesto en el artículo 111 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales |
| **LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA** | | **LICITACION Y ADJUDICACIÓN** |
| **11. klausula. Ahalmena eta kaudimena** | | **Cláusula 11.- Capacidad y solvencia** |
| <u>Ahalmena</u> | | <u>Capacidad</u> |
| Jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek bakarrik egin ahal izango dituzte kontratuak sektore publikoarekin, betiere 2017ko SPKLko 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuren bat ez badute eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatu badituzte edo, legeak hala eskatzen duenean, behar bezala sailkatuta badaude. | | Sólo podrán contratar con el sector público las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en alguna prohibición de contratar de las señaladas en al artículo 71 de la LCSP 2017, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional o, en los casos en que sea exigible, o se encuentren debidamente clasificadas. |
| Kontratistek kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko behar diren gaitasun enpresarial eta profesionalak eduki behar dituzte. | | Los contratistas deberán contar, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que contribuyan al objeto del contrato. |
| Pertsona juridikoak erakundearen sortze-estatutu edo -arauei jarraikiz dagozkien xede, helburu edo jarduera-esparruekin zerikusia duten kontratuen esleipendun bakarrik izan daitezke. | | Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios. |
| Erkidegoko enpresei, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta erkidegotik kanpoko enpresei dagokienez, 2017ko SPKLko 68. eta 69. artikuluak bete behar dituzte. | | En lo que respecta a las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y las empresas no comunitarias se estará a lo dispuesto en los artículos 68 y 69 de la LCSP 2017. |
| Sektore publikoarekin kontratuak egin ditzakete, halaber, horretarako eratzen diren aldi baterako enpresa-elkarteek. Kontratazio Mahaiak, kolusiorik badago, erabakiak hartzeko eskumena izango du, 2017ko SPKLko 69. artikuluari jarraikiz. Elkarteak ez dira zertan eskritura publikoan formalizatu kontratua haiei esleitu arte. | | Podrán contratar con el sector público las uniones de empresarios que se constituyan temporalmente al efecto, sin perjuicio de las facultades de la Mesa de Contratación cuando existan indicios de colusión, conforme al artículo 69 de la LCSP 2017, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor. |
| Eskaintza aldi baterako elkartuta aurkezten duten | | Los empresarios que concurran agrupados en |

| | | |
|---|---|---|
| enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ahaldun horrek kontratutik eratorritako eskubideak erabiltzeko eta eginkizunak betetzeko ahalorde askietsia eduki behar du, kontratua iraungitzen den arte. Dena den, enpresek zenbateko handiak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eduki ditzakete. | | uniones temporales quedarán obligados solidariamente y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo, sin perjuicio de la existencia de poderes mancomunados que puedan otorgar para cobros y pagos de cuantía significativa. |
| Aldi baterako elkartean bat eginda lehiatu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen duten enpresaburu guztien izen-abizenak eta partaidetza zehaztu behar dituzte. Horrez gain, kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako elkartea eratuko dutelako konpromisoa hartu dutela adierazi behar dute. Enpresen aldi baterako elkarteen iraunaldia kontratuarena izango da, gutxienez. | | Los empresarios que deseen concurrir integrados en una unión temporal deberán indicar los nombres y circunstancias de los que la constituyan y la participación de cada uno, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. La duración de las uniones temporales de empresarios será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción. |
| Kaudimena | | Solvencia |
| Enpresaburuek egiaztatu behar dute kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen profesional edo tekniko nahikoa dutela, 2017ko SPKLko 86., 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Kaudimena EKABen (Europako kontratazio-agiri bakarra) zehaztutako moduan egiaztatu eta ebaluatuko da, eta honako hau izango da: | | Los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica de conformidad con lo previsto en los artículos 86, 87 y 90 de la LCSP 2017. La solvencia se acreditará y evaluará de la manera indicada en el DEUC (documento europeo único de contratación), y será la siguiente: |
| **1. Kaudimen ekonomikoa:** | | **1.- Solvencia económica**: |
| a) Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbateko minimoa: 240.000,00 euro. | | a) Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe mínimo de 240.000,00 €. |
| **2. Kaudimen tekniko edo profesionala:** | | **2.- Solvencia técnica o profesional**: |
| a) Gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak, zehazki kontratuaren xede direnen antzekoak. Zehaztu behar dira lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua). Gaitasun-maila egokia dela ziurtatzea behar izanez gero, esleitzaileek adieraz dezakete azken hiru urteetatik | | a) Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de, como máximo los tres últimos años, en la que se indique el importe, la fecha y el destinatario, público o privado de los mismos; cuando sea necesario para |

| | | |
|---|---|---|
| atzera egindako zerbitzuen frogagiriak kontuan hartuko dituztela. Kontratazio-organoaren mende dauden zerbitzuek hala eskatuz gero, egindako lan eta zerbitzuen hartzailea sektore publikokoa bada, lan eta zerbitzu horiek organo eskudunak egin edo onetsitako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira; eta hartzailea subjektu pribatua izanez gero, berriz, hark egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiririk ez edukiz gero, enpresaburuaren adierazpena eta lan hori egin duela egiaztatzen duten agiriak. Hala badagokio, ziurtagiri horiek kontratazio-organoari emango dizkio zuzenean eskumena duen agintaritzak. | | garantizar un nivel adecuado de competencia los poderes adjudicadores podrán indicar que se tendrán en cuenta las pruebas de los servicios pertinentes efectuados más de tres años antes. Cuando le sea requerido por los servicios dependientes del órgano de contratación los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por este o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario acompañado de los documentos obrantes en poder del mismo que acrediten la realización de la prestación; en su caso, estos certificados serán comunicados directamente al órgano de contratación por la autoridad competente. |
| b) Titulu akademiko eta profesionalak, enpresaburuarenak eta enpresako zuzendarienak eta, bereziki, kontratua egikaritzeaz arduratuko den pertsonarenak, egiaztatzeko zergak kudeatzeko ezaupide teknikoak eta esperientzia dituztela. | | b) Títulos académicos y profesionales del empresario y de los directivos de la empresa y, en particular, del responsable de la ejecución del contrato acreditando poseer conocimientos técnicos en materia de gestión tributaria y experiencia con la que cuenta. |
| c) Lanak eta zerbitzuak gauzatzeko zer makina, material eta ekipo tekniko jarriko dituen zehazten duen adierazpena, agiri teknikoan ezarritakoaren arabera. | | c) Declaración indicando la maquinaria, material y equipo técnico del que se dispondrá para la ejecución de los trabajos o prestaciones, de conformidad con lo dispuesto en el pliego técnico. |
| Bost urte baino gutxiagoko enpresa berriek kaudimen teknikoa aurreko b) eta c) ataletan adierazi bezala egiaztatuko dute. | | En caso de empresas de nueva creación de antigüedad inferior a cinco años, su solvencia técnica se acreditará con lo dispuesto en los anteriores apartados b) y c). |
| Kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoa jartzeko konpromisoa aurkeztu behar da, agiri honetan eta agiri teknikoan ezarritakoaren arabera. Konpromiso hori funtsezko betekizuntzat joko da eta, parteren bat betetzen ez bada edo ez bada behar bezala betetzen, kontratua bertan behera utziko da edo zigorrak ezarriko dira. | | El compromiso de dedicación o adscripción de los medios personales o materiales suficientes para la ejecución del contrato, según lo dispuesto en el presente pliego y en el pliego técnico, tendrá carácter de obligación esencial a los efectos de ser considerado como causa de resolución del contrato o de imposición de penalidades por incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso. |

**12. klausula. Kontratua esleitzeko eta berdinketa hausteko irizpideak**

<u>Kontratua esleitzeko irizpideak</u>

Kontratua esleitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan eta haztapena erlatiboa izango da:

**Formula automatikoekin ebaluatu ezin den esleipen-irizpidea:** 50 puntu.

- Memoria: 50 puntu.

Atal honetan hau baloratuko da:

1. Zerbitzua emateko modua: langileen organigrama eta antolamendua, egin beharreko lan zehatzak eta lan horiek koordinatzeko modua, arduraldiak, lanak zenbatero egingo diren (datak ixtea, errekurtsoak ebazteko epea, betearazpen-karguak sartzeko eta jakinarazteko epea…) eta informazioa Udalaren aplikazioan zenbatero jarriko den: 40 puntu.
2. Langileak eta, beraz, zerbitzua gerta daitezkeen lege-aldaketetara egokitzeko jarduera osagarrien proposamena: 10 puntu.

**Formula automatikoekin ebaluatu daitezkeen esleipen-irizpideak:** 50 puntu.

- Proposamen ekonomikoa: 40 puntu.

Hobekuntza ekonomikoak: zerbitzuaren ordain gisa ezarritako portzentajeak murriztea, esleipendunaren kontura.

- 6. klausulako A.1 atala % 5 murrizten den bakoitzeko, bost puntu.
- 6. klausulako B.1 atala % 1 murrizten den bakoitzeko, bi puntu.
- 6. klausulako B.2 atala % 5 murrizten den bakoitzeko, bost puntu.

Portzentaje horietara heltzen diren murrizketengatik bakarrik emango dira puntuak.

**Cláusula 12.- Criterios de adjudicación y desempate**

<u>Criterios de adjudicación</u>.

Para la adjudicación del contrato se tendrán en cuenta los siguientes criterios de adjudicación del contrato con indicación de la ponderación relativa de los mismos:

**Criterio de adjudicación no evaluable mediante fórmula automática**: 50 puntos.

- Memoria: 50 puntos.

En este apartado se valorará:

1- Modo de prestación del servicio: organigrama y organización de personal, con indicación de tareas a realizar y modo de coordinación de las mismas, horas de dedicación, periodicidad en la ejecución de las tareas (cierre da datas, plazo de resolución de recursos, plazo de incorporación y notificación de cargos de ejecutiva…, etc.) y en el traslado de la información a la aplicación municipal: 40 puntos.
2- Propuesta de actuaciones complementarias al objeto de garantizar que el personal y, por tanto, el servicio se adapten a los cambios legislativos que puedan surgir: 10 puntos.

**Criterios de adjudicación evaluables mediante fórmulas automáticas**: 50 puntos.

- Proposición económica: 40 puntos

Mejoras económicas consistentes en la reducción de los porcentajes establecidos como contraprestación económica a cargo del adjudicatario.

- Se obtendrán cinco puntos por cada 5% de baja en el apartado A.1 de la cláusula 6ª.
- Se obtendrán dos puntos por cada 1% de baja en el apartado B.1 de la cláusula 6ª.
- Se obtendrán cinco puntos por cada 5% de baja en el apartado B.2 de la cláusula 6ª.

Sólo obtendrán puntos las reducciones que alcancen los porcentajes indicados. Es decir, no

| | | |
|---|---|---|
| Hau da, murrizketak txikiagoak badira, ez dira puntuak proportzionalki banatuko.<br><br>• Kontratua gauzatzeko arduradunak Udalari, hark eskatzen dionean, zuzenean laguntzeko konpromisoa: 10 puntu.<br><br>Egun berean: 10 puntu.<br>Bi egunen buruan: 5 puntu.<br>Hiru egunen buruan: 2 puntu.<br>Gainerakoetan: 0 puntu.<br><br><u>Berdinketa hausteko irizpideak</u><br><br>Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintza edo gehiagok puntuazio bera badute, berdinketa irizpide sozial hauek aplikatuz hautsiko da (irizpideak eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren bete behar dituzte enpresek):<br><br>- Enpresen langile-taldean desgaitasunak dituzten edo gizarteak baztertuta dauden langileen portzentajea handiagoa izatea. Enpresek portzentaje bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edo gizarteratzeko hartutako langile gehien dituena gailenduko da.<br><br>- Enpresen langile-taldean aldi baterako kontratuen portzentajea txikiagoa izatea.<br><br>- Enpresen langile-taldean emakume-portzentajea handiagoa izatea.<br><br>- Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa ez bada hausten, zozketa egingo da.<br><br>Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen denean aurkeztu behar dituzte lizitatzaileek, ez lehenago.<br><br>**13. klausula. Proposamenak aurkeztea**<br><br>Proposamenak lizitazioa zuzentzen duten agiri eta dokumentuetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar dira. Aurkeztuz gero, enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen ditu | | se repartirán puntos proporcionales para reducciones inferiores a las señaladas.<br><br>• Compromiso de que el responsable de la ejecución del contrato asista personalmente al Ayuntamiento cuando eventualmente éste, se lo requiera: 10 puntos<br>En el mismo día: 10 puntos<br>En el plazo de 2 días: 5 puntos<br>En el plazo de 3 días: 2 puntos<br>El resto: 0 puntos<br><br><u>Criterios de desempate</u>.<br><br>Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:<br><br>- Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.<br><br>- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.<br><br>- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.<br><br>- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.<br><br>La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.<br><br>**Cláusula 13.- Presentación de proposiciones**.<br><br>Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del |

| | | |
|---|---|---|
| klausula eta baldintza guztiak, salbuespenik gabe, eta baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu-kideen operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko. | | contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. |
| Proposamenak ezkutukoak izango dira eta hori ziurtatzeko behar diren neurriak jarriko dira, proposamenak ireki bitartean. | | Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones. |
| Lizitatzaile batek banakako proposamena aurkezten badu, ezin du aldi baterako elkarte baten proposamenik sinatu. Halaber, lizitatzaileak ezin dira aurkeztu aldi baterako elkarte bat baino gehiagorekin. | | Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. |
| Lizitatzaile batek arau horiek urratzen baditu, ez da onartuko hark sinatutako proposamen bat ere. | | La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas. |
| Proposamenean jasanarazi beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa jaso behar da, partida bereizi gisa. | | En la proposición deberá indicarse, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido que deba ser repercutido. |
| <u>1. Bitartekoak</u> | | <u>1.- Medios</u> |
| Proposamenak paperean eta euskarri informatikoan (CD edo DVD) aurkeztu behar dira. | | La presentación de proposiciones se realzará en soporte papel y en soporte informático (CD o DVD). |
| Proposamenak lizitazio-iragarkian adierazitako erregistroan edo postaz aurkeztu daitezke. Postaz bidaliz gero, HAKLEOko 80.4 artikuluan zehaztutakoa bete behar da, eta helbidea kontratatzailearen profilean adierazitakoa izango da. Alde horretatik, proposamena posta-bulegotik zein egunetan eta zer ordutan bidali den justifikatu behar da eta kontratazio-organoari egun berean jakinarazi behar zaio proposamena bidali izana, telex, fax edo telegrama bitartez, honako hauek zehaztuta: espediente-zenbakia, kontratuaren izenburu osoa eta lizitatzailearen izena. | | Las proposiciones podrán presentarse en el registro indicado en el anuncio de licitación y por correo. En este caso, deberán remitirse a la dirección señalada en el Perfil del Contratante, conforme a lo previsto en el artículo 80.4 del RGLCAP, debiendo justificarse la fecha y hora de la imposición del envío en la Oficina de Correos y anunciar en el mismo día al Órgano de contratación la remisión de la oferta mediante télex, fax o telegrama en el que se consignará el número de expediente, título completo del contrato y nombre del licitador. |
| Posta elektroniko bidez ere egin daiteke jakinarazpena, helbidea hau da: udala@beasain.eus. Horrelakoetan, ordea, bidalketa baliozkotzat joko da bidali eta jaso izanaren, bidalitako egunaren eta komunikazioen eduki osoaren frogarik badago eta, gainera, | | También podrá anunciarse por correo electrónico, a la dirección de correo: udala@beasain.eus, pero en este supuesto el envío sólo será válido si existe constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones y se identifica fidedignamente al |

| | | |
|---|---|---|
| igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira. | | remitente y al destinatario. |
| Bi baldintza horiek ez betez gero, eta kontratazio organoak dokumentazioa deialdian agertzen den epea amaitu ondoren jasotzen badu, dokumentazioa ez da onartuko. Postaz bidaliz gero, eskaintza proposamenak onartzeko epearen (eguna eta ordua) barruan bidali dela justifikatze aldera, frogatzat onartuko da fax, telegrama edo mezu elektronikoan postaz egindako bidalketaren ziurtagiriaren zenbakia aipatzea. | | Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la proposición si es recibida por el Órgano de contratación con posterioridad a la fecha de terminación del plazo señalado en el anuncio de licitación. A efectos de justificar que el envío por correo se hace dentro de la fecha y hora señaladas para la admisión de proposiciones, se admitirá como medio de prueba, que en el fax, telegrama o correo electrónico se haga referencia al número del certificado del envío hecho por correo. |
| <u>2. Agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratzea</u> | | <u>2.- Acceso a los pliegos y demás documentación complementaria</u>. |
| Toki-erakundeak kontratatzailearen profila medio (ezaugarrien koadroko 1. atala) jarriko ditu interesdunaren eskura agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria, bitarteko elektronikoen bidez, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik; sarbidea librea, zuzena, erabatekoa eta doakoa izango da. | | El acceso a los pliegos y demás documentación complementaria se ofrecerá por esta Entidad Local a través del perfil de contratante (apartado 1 del cuadro de características), por medios electrónicos, acceso que será libre, directo, completo y gratuito, y que se efectuará desde la fecha de la publicación del anuncio de licitación. |
| 2017ko SPKLko 159.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera, eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez egongo da eskura iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik. | | De acuerdo con lo señalado en el artículo 159.2 de la LCSP 2017 toda la documentación necesaria para la presentación de la oferta estará disponible por medios electrónicos desde el día de la publicación del anuncio en dicho perfil de contratante. |
| <u>3. Informazio osagarria</u> | | <u>3.- Información adicional.</u> |
| Toki-erakundearen kontratazio-organoek, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez sei egun lehenago, lizitazio-prozeduran parte hartzea interesatzen zaien guztiei emango dizkie agirien gaineko informazio osagarria eta haiek eskatutako dokumentazio osagarri guztia. Betiere, interesdunek proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 10 egun lehenago eskatu behar dute informazio hori. | | Los órganos de contratación de la Entidad Local proporcionarán a todos los interesados en el procedimiento de licitación, a más tardar 6 días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, la información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que éstos soliciten, a condición de que la hubieren pedido al menos 10 días antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones. |
| Erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. | | Las respuestas tendrán carácter vinculante y se publicarán en el perfil de contratante. |
| <u>4. Tokia eta epea</u> | | <u>4.- Lugar y plazo.</u> |
| Proposamenak kontratatzailearen profilean | | Las proposiciones se presentarán en el lugar y |

| | | |
|---|---|---|
| argitaraturiko lizitazio-iragarkian adierazitako tokian eta epean aurkeztu behar dira.<br><br>Proposamenak aurkezteko epea HAMABOST EGUNEKOA da, kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazio-iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 2017ko SPKLko 156. artikuluari jarraikiz.<br><br>5. Konfidentzialtasuna<br><br>2017ko SPKLko 133. artikuluaren arabera, toki-erakundeak ez du ezagutzera emango enpresaburuek eskaintza aurkezterakoan konfidentzialtzat jo duten informazioa.<br><br>Konfidentzialak izango dira, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialak, eskaintzen isilpeko gaiak eta lizitazio-prozedura honetan edo hurrengoetan lehia desitxuratzeko erabil daitekeen gainerako informazio guztia.<br><br>Kontratazio-organoari eta haren mendeko zerbitzuei informazioa isilpean gordetzeko dagokien betekizuna ezin da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora hedatu.<br><br>Halaber, informazioa isilpean gordetzeko betekizunak ezin du eragotzi egindako kontratuetan konfidentzialak ez diren parteak ezagutzera ematea. Alde horretatik, betiere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean ezarritakoa beteko da.<br><br>**14. klausula. Proposamenen edukia**<br>.<br>Lizitatzaileek ondoren azalduko ditugun gutun-azaletan aurkeztu behar dute proposamena, itxita eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azaletan edukia eta lizitatzailearen izena jarri behar dira. Gutun-azal bakoitzaren barruan, orri bereizi batean, zer eduki duen adieraziko da, zerrendatuta eta zenbakituta.<br><br>Espainian kontratua egin nahi duten atzerriko enpresek dokumentazioaren gaztelaniazko edo euskarazko itzulpen ofizialak aurkeztu behar dituzte. | | plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante.<br><br>El plazo para presentar las proposiciones será de QUINCE DÍAS, contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil de contratante conforme al artículo 156 de la LCSP 2017.<br><br>5.- Confidencialidad.<br><br>De acuerdo con el artículo 133 de la LCSP 2017 la entidad local no divulgará la información facilitada por los empresarios que éstos hayan designado como confidencial en el momento de presentar su oferta.<br><br>El carácter de confidencial afecta, entre otros, a los secretos técnicos o comerciales, a los aspectos confidenciales de las ofertas y a cualesquiera otras informaciones cuyo contenido pueda ser utilizado para falsear la competencia, ya sea en ese procedimiento de licitación o en otros posteriores.<br><br>El deber de confidencialidad del órgano de contratación, así como de sus servicios dependientes no podrá extenderse a todo el contenido de la oferta del adjudicatario.<br><br>El deber de confidencialidad tampoco podrá impedir la divulgación pública de partes no confidenciales de los contratos celebrados, respetando en todo caso lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.<br><br>**Cláusula 14.- Contenido de las proposiciones**<br>.<br>Los licitadores deberán presentar la proposición en los sobres que luego se señalan, cerrados y firmados por el licitador o persona que lo representa haciendo constar en cada uno de ellos su respectivo contenido y el nombre del licitador. En el interior de cada sobre se hará constar en hoja independiente su contenido, ordenado numéricamente.<br><br>Las empresas extranjeras que contraten en España presentarán la documentación traducida de forma oficial al castellano o, en su caso, a la lengua de la Comunidad Autónoma del País |

| | | |
|---|---|---|
| | | Vasco. |
| <u>1. A gutun-azala</u> | | <u>1.- Sobre A</u> |
| IZENBURUA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA, ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO | | TÍTULO: DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS LABORES DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE LAS MULTAS DE TRÁFICO Y OTA (RECAUDACIÓN VOLUNTARIA Y EJECUTIVA), ASÍ COMO LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y DE OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS. |
| Edukia | | Contenido |
| A gutun-azalean erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da. Adierazpen hori Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB) formularioaren arabera egin (1. ERANSKIN gisa gehitu diogu agiri honi) eta sinatu egin behar da, nork sinatu duen zehaztuta. Adierazpenean honako hauek azaldu behar dira: | | El Sobre A incluirá declaración responsable que se ajustará al formulario de documento europeo único de contratación (DEUC) que se adjunta como ANEXO 1, que deberá estar firmado y con la correspondiente identificación, en la que el licitador ponga de manifiesto: |
| - Sozietatea baliozki eratuta dagoela; daukan helburu soziala kontuan hartuta, lizitazioan parte har dezakeela; eta adierazpena sinatu duenak proposamena aurkezteko eta sozietatearen izenean aritzeko eskumena duela. | | - Que la sociedad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella. |
| - Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, agiriak Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera ezarritako moduan. | | - Que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establezca el pliego de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación. |
| - Ez duela bere kasa eta ezta hedaduraz ere kontratatzeko debekurik, 2017ko SPKLko 71.3 artikuluaren arabera. | | - Que no está incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP 2017. |
| - Jakinarazpenak jasotzeko posta elektronikoko helbide bat. Helbide hori «egokitu» egin behar da, 2017ko SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak jakinarazpenak helbide horretara bidaltzea erabakitzen duenean. | | - La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones, que deberá ser «habilitada» de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017, cuando el órgano de contratación haya optado por realizar las |

| | | |
|---|---|---|
| | | notificaciones a través de la misma. |
| - Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzea aukeratzen badu, 2017ko SPKLko 75. artikuluari jarraikiz, enpresa horiek erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu behar dute, horrelakoetan jaso behar den informazio guztiarekin, Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera. | | - Cuando el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la LCSP 2017, cada una de ellas deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario normalizado del documento europeo único de contratación. |
| - Enpresak beste erakunde batzuen ahalmena erabiltzen badu, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu behar du, ahalmen hori erabili ahal izango duela egiaztatzeko. | | - Cuando la empresa recurra a las capacidades de otras entidades, deberá presentar compromiso por escrito de dichas entidades para demostrar que va a disponer de tales recursos. |
| - Enpresaburu batek baino gehiagok aldi baterako elkarte moduan lehiatzen badute, enpresek erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu behar dute, horrelakoetan jaso behar den informazio guztiarekin, Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera. Horri aldi baterako elkartea eratzeko enpresaburuen konpromisoa gehitu behar zaio. | | - En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación. Adicionalmente se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma. |
| - Atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, beste bat aurkeztu behar dute, non Espainiako maila guztietako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioari men egingo diotela azalduko duten, kontratua dela eta zuzenean edo zeharka sortzen diren intzidentzia guztiak ebazteko eta, hala badagokie, dagokien atzerriko jurisdikzioari uko egiten diotela adieraziko uten. | | - Además de la declaración responsable las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante. |
| - Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuan jasotakoez aparteko beste egoeraren bat egiaztatu behar bada, formularioak berak adieraziko du nola egiaztatu. | | - Cuando se exija la acreditación de otras circunstancias distintas de las que comprende el formulario del documento europeo único de contratación, el mismo indicará la forma de su acreditación. |
| Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkeztea eska diezaiekete hautagai edo lizitatzaileei, baldin eta adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunaren gaineko arrazoizko zalantzak badituzte, prozedura egoki gauzatzeko ezinbestekoa bada eta, betiere, kontratua esleitu baino lehen. | | El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los candidatos o licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato. |

| | | |
|---|---|---|
| Dena den, enpresaburuak Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda badaude edo Europar Batasuneko estatu-kideren baten datu-base nazionalen batean ageri badira (adibidez: enpresaren espediente birtuala, agiriak gordetzeko sistema elektroniko bat eta aurrez sailkatzeko sistema bat), eta datu horiek aipaturiko organoak doan eskuratzeko modukoak badira, ez dute erregistro eta datu-base horietan jasotako datuen egiaztagiri edo frogagiririk zertan aurkeztu. | | No obstante, cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares. |
| Aurreko ataletan aipaturiko ahalmenari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko baldintzak bete behar dira hala eskaintza aurkezteko epea amaitzen denean nola kontratua burutzen denean. | | Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato. |
| <u>2. B gutun-azala</u> | | <u>2.- Sobre B</u> |
| IZENBURUA: DOKUMENTAZIOA, FORMULA AUTOMATIKOEN BITARTEZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKOA, ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO | | TÍTULO: DOCUMENTACIÓN RELATIVA A CRITERIOS NO EVALUABLES MEDIANTE FORMULA AUTOMÁTICA, PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS LABORES DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE LAS MULTAS DE TRÁFICO Y OTA (RECAUDACIÓN VOLUNTARIA Y EJECUTIVA), ASÍ COMO LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y DE OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS. |
| Edukia | | Contenido |
| B gutun-azalean memoria sartu behar da. | | En este sobre B se incluirá la Memoria. |
| B gutun-azalean ezin da, inola ere, C gutun-azalari dagokion agiririk sartu. | | En ningún caso podrá incluirse, en este sobre B documentos propios del sobre C. |
| <u>3. C gutun-azala</u> | | <u>3.- Sobre C</u> |
| IZENBURUA: DOKUMENTAZIOA, FORMULA AUTOMATIKOEN BITARTEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKOA, ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO | | TÍTULO: DOCUMENTACIÓN RELATIVA A CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FORMULAS AUTOMÁTICAS, PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS LABORES DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL |

| | | |
|---|---|---|
| UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO<br><br><br>Edukia<br><br>C gutun-azalean sartu behar dira, batetik, eskaintza ekonomikoa; eta bestetik, kontratua gauzatzeko arduradunak Udalari, hark eskatuz gero, zuzenean laguntzeko konpromisoaren proposamena.<br><br>Eskaintza ekonomikoa agiri honetako 2. ERANSKINEAN jasotako ereduaren arabera aurkeztuko da.<br><br>Eskaintza ekonomikoa karaktere argiekin edo makinaz idatzita aurkeztu behar da. Beraz, toki-erakundeak eskaintza aintzat hartzeko oinarrizkotzat jotzen duen edozer argi eta garbi ulertzeko hutsik, akatsik edo ezabaketarik badu, eskaintza ez da onartuko.<br><br>**15. klausula. Kontratazio-mahaia**<br><br>Beasaingo Udalaren prozesu honetarako kontratazio-mahaiko kideak hauek izango dira:<br><br>- Lehendakaria: Ekonomia Saileko zinegotzi arduraduna.<br>- Behin-behineko diruzaina.<br>- Beasaingo Udaleko kontu-hartzailea.<br>- Beasaingo Udaleko idazkaria.<br><br>Mahaiaren osaera kontratatzailearen profilean argitaratuko da.<br><br>**16. klausula. Dokumentuak kalifikatzea, enpresak aukeratzea eta proposamenak irekitzea**<br><br>Kontratazio-mahaiak kalifikatuko ditu enpresek aurreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak eta A gutun-azaleko erantzukizunpeko adierazpena.<br><br>Adierazpena ez aurkeztuz gero edo | | SERVICIO DE LAS MULTAS DE TRÁFICO Y OTA (RECAUDACIÓN VOLUNTARIA Y EJECUTIVA), ASÍ COMO LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y DE OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS.<br><br><br>Contenido<br><br>En este sobre C se incluirá la oferta económica y la propuesta de compromiso de asistencia presencial del responsable de la ejecución del contrato a requerimiento del Ayuntamiento<br><br><br>La oferta económica, se presentará conforme al modelo que se adjunta como ANEXO 2 de este Pliego.<br><br>La oferta económica se presentará en caracteres claros o escrita a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta<br><br>**Cláusula 15.- Mesa de contratación**<br><br>La Mesa de Contratación para este proceso del Ayuntamiento de Beasain, estará compuesta por:<br>- Presidente: la concejal responsable del área económica.<br>- La Tesorera accidental.<br>- Interventora del Ayuntamiento de Beasain<br>- Secretaria del Ayuntamiento de Beasain.<br><br>La composición de la Mesa se publicará en el perfil de contratante.<br><br>**Cláusula 16.- Calificación de documentos, selección de empresas y apertura de proposiciones**<br><br>La Mesa de contratación calificará la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos y la declaración responsable incluida en el sobre A.<br><br>Será objeto de subsanación por los licitadores la |

| | | |
|---|---|---|
| aurkeztutakoa behar bezala beteta ez badago, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak zuzentzea eska dezake, eta lizitatzaileek zuzentzeko aukera izango dute. Horretarako, lizitatzaileek hiru egun baliodun izango dituzte, zuzentzeko eskaria jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Adierazpena epe horretan ez zuzenduz gero, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak ulertuko du lizitatzaileak uko egin diola eskaintza aurkezteari. | | declaración responsable, a requerimiento del órgano o la mesa de contratación, cuando no se hubiera presentado, o no estuviera adecuadamente cumplimentada la presentada. En tales casos se conferirá al licitador o licitadores afectados un plazo de tres días hábiles, a contar desde el siguiente al de recepción del requerimiento de subsanación. De no subsanar en plazo lo requerido, el órgano o la mesa de contratación entenderá que el licitador desiste de su oferta. |
| Enpresek aurreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aztertu ondoren, kontratazio-mahaiak aktak egingo ditu, zer eskaintza onartu eta baztertu dituen adierazteko, eta akta horiek kontratatzailearen profilean argitaratuko dira; profil hori iragarki-ohol moduko bat izango da. Hala eta guztiz ere, lizitatzaileek jakinarazpena jasoko dute. | | Las actas de la Mesa de contratación de calificación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos en las que se recoja la admisión y exclusión de las ofertas se publicarán en el perfil de contratante, que actuará como tablón de anuncios, sin perjuicio de la necesaria comunicación o notificación, según proceda, a los licitadores afectados. |
| Lizitatzaileren baten eskaintza baztertuz gero, eta kontratazio-mahaiak egingo duen ekitaldi publikoan enpresaren ordezkariren bat badago, hantxe jakinaraziko zaio; bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako prozeduren arabera jasoko du jakinarazpena. | | El acto de exclusión de un licitador podrá ser notificado a éste en el acto público que celebre la Mesa, si fuera posible por encontrarse algún representante de la empresa y, en su defecto, con arreglo a los restantes procedimientos establecidos en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas. |
| 2017ko SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jakinarazpenak egin daitezke egokitutako helbide elektronikoaren bitartez edo agerraldi elektronikoa medio. Jakinarazpenetik kontatzeko epeak jakinarazpena bidalitako egunetik edo, agerraldi elektronikoa bada, jakinarazpenaren abisutik kontatuko dira, baldin eta jakinarazi beharreko ekintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatuko dira. | | De conformidad con la Disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017, las notificaciones se podrán realizar mediante dirección electrónica habilitada o mediante comparecencia electrónica. Los plazos a contar desde la notificación se computarán desde la fecha de envío de la misma o del aviso de notificación, si fuera mediante comparecencia electrónica, siempre que el acto objeto de notificación se haya publicado el mismo día en el Perfil de contratante del órgano de contratación. En caso contrario los plazos se computarán desde la recepción de la notificación por el interesado. |
| **17. klausula. Proposamenak aztertzea, esleipena proposatzea eta ezagutzera ematea** | | **Cláusula 17. Examen de las proposiciones, propuesta de adjudicación y publicidad.** |
| Kontratazio-mahaiak proposamenak ireki, esleipenduna aukeratzeko aplikatu beharreko irizpideei jarraikiz aztertu eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena egingo dio. | | La Mesa de Contratación procederá a la apertura y examen de las proposiciones, formulando la correspondiente propuesta de adjudicación al órgano de contratación, una vez ponderados los |

| | | |
|---|---|---|
| | | criterios que deban aplicarse para efectuar la selección del adjudicatario. |
| Proposamenak gehienez hogei egunen buruan ireki behar dira, aurkezteko azken egunetik kontatzen hasita. | | La apertura de las proposiciones deberá efectuarse en el plazo máximo de veinte días contado desde la fecha de finalización del plazo para presentar las mismas. |
| Proposamena gutun-azal batean baino gehiagoan badago eta gutun-azal horiek ekitaldi bereizietan ireki behar badira, proposamenari dagokion lehen gutun-azala irekitzen denean joko da aipaturiko epea amaitutzat. | | Si la proposición se contiene en más de un sobre, que deban abrirse en varios actos independientes, el plazo máximo señalado se entenderá cumplido cuando se haya abierto, dentro del mismo, el primero de los sobres que componen la proposición. |
| Proposamenak formulen bitartez kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera ebaluatu baino lehen, formulen bitartez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideen arabera ebaluatuko dira eta hori egin izana idatziz jasoko da. | | La evaluación de las ofertas conforme a los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas se realizará tras efectuar previamente la de aquellos otros criterios en que no concurra esta circunstancia, dejándose constancia documental de ello. |
| Aurreko ebaluazio hori formulak aplikatuz baloratu daitezkeen elementuak dituen gutun-azala irekitzeko ekitaldian emango da ezagutzera. | | La citada evaluación previa se hará pública en el acto en el que se proceda a la apertura del sobre que contenga los elementos de la oferta que se valoraran mediante la mera aplicación de fórmulas. |
| Proposamenak baloratzeko prezioa ez beste irizpide batzuk kontuan hartuz gero, eskaintzek agiriko zehazpen teknikoak betetzen dituztela egiaztatze aldera, organo eskudunak egoki iritzitako txosten teknikoak eska ditzake, proposamena egin aurretik. | | Cuando para la valoración de las proposiciones se tengan en cuenta criterios distintos al del precio, y para verificar que las ofertas cumplen con las especificaciones técnicas del pliego el órgano competente podrá solicitar, antes de formular su propuesta, cuantos informes técnicos considere precisos. |
| Kontratazio-mahaiak, halaber, kontratuaren xedearekin zerikusia duten gaietan ezaupide egiaztatuak dituzten teknikari edo aditu independenteen aholkua eska dezake. | | La Mesa de contratación podrá, asimismo, solicitar el asesoramiento de técnicos o expertos independientes con conocimientos acreditados en las materias relacionadas con el objeto del contrato. |
| Laguntza hori kontratazio-organoak baimenduko du eta espedientean berariaz jasoko da, teknikari edo adituen izen-abizenak, prestakuntza eta esperientzia profesionala zehaztuta. | | Dicha asistencia será autorizada por el órgano de contratación y deberá ser reflejada expresamente en el expediente, con referencia a las identidades de los técnicos o expertos asistentes, su formación y su experiencia profesional. |
| Eskaintza ekonomikoa ekitaldi publikoan irekiko da. | | La apertura de la oferta económica se realizará en acto público. |
| Proposatutako lizitatzaileak ez du haren aldeko | | La propuesta de adjudicación no crea derecho |

| | | |
|---|---|---|
| eskubiderik izango toki-erakundearen aurrean. Dena den, kontratazio-organoak kontratua ez badio kontratazio-mahaiak proposatutako lizitatzaileari esleitzen, erabaki hori hartzeko zer arrazoi dituen azaldu beharko du. | | alguno en favor del licitador propuesto frente a la Entidad Local. No obstante, cuando el órgano de contratación no adjudique el contrato de acuerdo con la propuesta formulada deberá motivar su decisión. |
| Kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, lehenik, parte hartu duen lizitatzaile-kopurua eta lizitatzaileen izen-abizenak; bigarrenik, kontratazio-mahaiak esleipen-prozeduraren gainean egindako akta guztiak; hirugarrenik, balio-judizio baten bitartez kuantifikatu daitezkeen esleipen-irizpideen balorazio-txostena, eskaintza guztiena; laugarrenik, hala badagokio, 2017ko SPKLko 149.4 artikuluan jasotako ustezko anormaltasunen bat duten eskaintzen gaineko txostenak; eta, betiere, kontratua esleitzeko erabakia. | | Serán objeto de publicación en el Perfil del Contratante el número e identidad de los licitadores participantes en el procedimiento, así como todas las actas de la mesa de contratación relativas al procedimiento de adjudicación, el informe de valoración de los criterios de adjudicación cuantificables mediante un juicio de valor de cada una de las ofertas, en su caso, los informes sobre las ofertas incursas en presunción de anormalidad a que se refiere el artículo 149.4 de la LCSP 2017 y, en todo caso, la resolución de adjudicación del contrato. |
| **18. klausula. Kontratua esleitzea eta formalizatzea** | | **Cláusula 18.- Adjudicación y formalización** |
| Lizitatzaileei kontratua esleitzeko erabaki arrazoituaren jakinarazpena bidali behar zaie eta erabakia kontratatzailearen profilean argitaratu behar da, hamabost egunen buruan. | | La resolución motivada de adjudicación se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días. |
| Jakinarazpenak eta publizitateak interesdunek kontratua esleitzeko erabakiaren kontra helegite oinarriduna jarri ahal izateko adina informazio eduki behar dute, gutxienez honako hau: | | La notificación y la publicidad deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, y entre ella en todo caso deberá figurar la siguiente: |
| - Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez, adierazi behar da haien eskaintzak zergatik ez diren onartu eta zergatik erabaki den ez direla baliokideak edo haien zerbitzuak ez datozela bat etekinen betebeharrekin edo betekizun funtzionalekin. Horrez gain, lizitatzaileek (esleipendunak barne) zer balorazio izan dituzten azaldu behar da, balorazioak banakatuta. | | - Con respecto a los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación, los motivos por los que no se haya admitido su oferta, los motivos de la decisión de no equivalencia o de la decisión de que los servicios no se ajustan a los requisitos de rendimiento o a las exigencias funcionales; y un desglose de las valoraciones asignadas a los distintos licitadores, incluyendo al adjudicatario. |
| - Betiere, adierazi behar da, batetik, esleipendunaren izena; eta bestetik, zergatik aukeratu den haren eskaintza onartutako guztien artean, hau da, haren proposamenak zer bereizgarri eta abantaila dituen. | | - En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de este con preferencia respecto de las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas |
| Jakinarazpena baliabide elektronikoen bidez egingo da, 2017ko SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. | | La notificación se realizará por medios |

| | | |
|---|---|---|
| | | electrónicos de conformidad con lo establecido en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017. |
| Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da; agiri horrek lizitazioaren baldintzak zehatz-mehatz bete behar ditu eta nahikoa izango da edozein erregistro publikora sartzeko. Dena den, kontratistak kontratua eskritura publiko izatea eska dezake eta gastuak haren kontura izango dira. Kontratua formalizatzeko agirian ezin da inola ere jaso esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik. | | El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación. |
| Kontratua gehienez hamabost egun baliodunen buruan formalizatu behar da, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. | | La formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos. |
| Esleipendunari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua ez bada epe horretan formalizatzen, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ gabe), zigor gisa. Zenbateko hori behin betiko bermetik hartuko da, bermea eratu bada. Gainera, kontratatzeko debekutzat har daiteke. | | Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de su consideración como causa de prohibición para contratar. |
| Hori gertatuz gero, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio (eskaintzak sailkatutako ordenan), hark, lehen aipaturiko epean, aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren. | | En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados. |
| Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egozteko modukoak badira, kontratistari kalte-ordaina emango zaio, atzerapenak sortutako kalte-galerengatik. | | Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar. |
| Kontratua formalizatzeko agiria eta kontratua bera kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, gehienez hamabost egunen buruan, kontratua kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean burututako egunetik kontatzen hasita. | | La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del órgano de contratación. |
| Kontratua formalizatu denaren berri emateko iragarkiak 2017ko SPKLko III. eranskinean | | El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP |

| | | |
|---|---|---|
| jasotako informazioa edukiko du. | | 2017. |
| **19. klausula. Kontratua esleitu aurretik dokumentazioa aurkeztea** | | **Cláusula 19.- Presentación de documentación con carácter previo a la adjudicación** |
| Kontratazio-organoak proposamena onartu ondoren, dagokien zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote, 2017ko SPKLko 145. artikuluari jarraikiz, erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa (2017ko SPKLko 141. artikuluko baldintzak) egiaztatzeko agiriak aurkeztea. Lizitatzaileak hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriak, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. | | Una vez aceptada la propuesta de la mesa por el órgano de contratación, los servicios correspondientes requerirán al licitador que haya presentado la mejor oferta de conformidad con el artículo 145 de la LCSP 2017, para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa de las circunstancias reflejadas en la declaración responsable a las que se refiere el artículo 141 de la LCSP 2017. |
| Egiaztagiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bitartez bidal daitezke. | | Los certificados podrán ser expedidos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos. |
| Eskaria aipaturiko epean betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza atzera bota duenaren seinale izango da. | | De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta. |
| Hori gertatuz gero, hurrengo lizitatzaileari (eskaintzan sailkatutako ordenan) agiri berberak eskatuko zaizkio. | | En tal supuesto, se procederá a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas. |
| Kontratazio-organoak egiaztagiriak jaso eta hurrengo bost egun baliodunen buruan esleituko du kontratua. | | El órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación. |
| **20. klausula. Behin betiko bermea** | | **Cláusula 20.- Garantía definitiva** |
| Ekonomia aldetik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren 100eko 5eko bermea eratu beharko du (BEZ gabe). | | El licitador que presente la oferta económicamente más ventajosa deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía de un 5 por 100 del precio final ofertado por aquel, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido. |
| Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 108. artikuluan zehaztutako moduren batean eratu behar da. | | La garantía definitiva podrá prestarse en alguna o algunas de las formas previstas en el artículo 108 de la LCSP 2017. |
| Behin betiko bermea eratu dela bitarteko elektronikoen bitartez ziurta daiteke. | | La acreditación de la constitución de la garantía definitiva podrá hacerse mediante medios electrónicos. |
| Ekonomia aldetik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak kontratua esleitu | | La acreditación de la constitución de la garantía definitiva por el licitador que hubiera presentado |

| | | |
|---|---|---|
| aurreko dokumentazioa aurkezteko jarritako epea baino lehen egiaztatu behar du behin betiko bermea eratu duela. | | la oferta económicamente más ventajosa deberá acreditar en el plazo conferido para la presentación de la documentación previa a la adjudicación. |
| Kontratistari eskatutako zigor eta kalte-ordainak behin betiko bermeari egozten zaizkionean, kontratistak bermea berritu edo handitu behar du, dagokion zenbatekoarekin, egotzi eta hamabost eguneko epean; bestela, kontratua iraungiko da. | | Cuando se hagan efectivas sobre la garantía definitiva las penalidades o indemnizaciones exigibles al contratista, éste deberá reponer o ampliar aquélla, en la cuantía que corresponda, en el plazo de quince días desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución. |
| Kontratua aldatu eta prezioa ere aldatzen bada, bermea doitu egin behar da, prezio berriaren araberakoa izan dadin; hori, hamabost eguneko epean, enpresaburuari kontratua aldatzeko akordioaren berri emandako egunetik kontatzen hasita. | | Cuando, como consecuencia de una modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de quince días contados desde la fecha en que se notifique al empresario el acuerdo de modificación. |
| Alde horretatik, ez dira prezio-aldaketatzat hartuko kontratuko prezioak berrikusi ondoren onartzen direnak. | | A estos efectos no se considerarán las variaciones de precio que se produzcan como consecuencia de la aprobación de la revisión de precios del contrato. |
| Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 110. artikuluan jasotako kontzeptuetarako izango da. | | La garantía definitiva responderá de los conceptos a los que se refiere el artículo 110 de la LCSP 2017. |
| **21. klausula. Kontratua formalizatu dela iragartzea** | | **Cláusula 21. Anuncio de formalización**. |
| Kontratua formalizatzeko agiria eta kontratua bera kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, gehienez hamabost egunen buruan, kontratua burututako egunetik kontatzen hasita. | | La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante del órgano de contratación en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato. |
| Kontratua formalizatu denaren berri emateko iragarkiak 2017ko SPKLko III. eranskinean jasotako informazioa edukiko du. | | El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP 2017. |
| Egoki iritziz gero, kontratuari buruzko datu batzuk ez argitaratzea erabaki daiteke eta hori espedientean arrazoitu behar da. Ez argitaratzeko arrazoiak izan daitezke, lehenik, informazio hori ezagutzera emateak arau bat betetzea eragoztea; bigarrenik, informazio hori argitaratzea interes publikoaren kontrakoa izatea; hirugarrenik, argitaratuz gero enpresa publiko edo pribatuen legezko interes komertzialak edo haien arteko | | Podrán no publicarse determinados datos relativos a la celebración del contrato cuando se considere, justificándose debidamente en el expediente, que la divulgación de esa información puede obstaculizar la aplicación de una norma, resultar contraria al interés público o perjudicar intereses comerciales legítimos de empresas públicas o privadas o la competencia leal entre ellas, o cuando se trate de contratos declarados |

| | | |
|---|---|---|
| lehia zintzoa kaltetzea; laugarrenik, kontratua isilpekoa edo ezkutukoa izatea edo egikaritzeko segurtasun-neurri bereziak hartu behar izatea, indarrean dagoen legeriari jarraikiz; eta azkenik, estatuaren funtsezko segurtasun-interesak babestu behar izatea, 2017ko SPKLko 19. artikuluko 2. ataleko c) letran zehaztutakoaren arabera. | | secretos o reservados o cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales conforme a la legislación vigente, o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad del Estado y así se haya declarado de conformidad con lo previsto en la letra c) del apartado 2 del artículo 19 de la LCSP 2017. |
| Horrelakoetan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aipaturiko Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluari txostena egitea eskatu behar zaio, 2017ko SPKLko 154. artikuluari jarraikiz. | | En tal caso deberá recabarse la emisión de informe por el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno a que se refiere la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en los términos del artículo 154 de la LCSP 2017. |
| **KONTRATUA GAUZATZEA** | | **EJECUCIÓN DEL CONTRATO** |
| **22. klausula. Kontratua gauzatzea** | | **Cláusula 22.- Ejecución del contrato** |
| Kontratua gauzatzeko garaian, arriskuak bere kontura hartuko ditu kontratistak. | | La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista. |
| Kontratua gauzatzeko kontuan hartu behar dira agiri honetako klausulak eta, hala badagokie, espedienteko zehazpen teknikoak. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu eta eskumen horiek baliatuko ditu idatziz zein ahoz. | | El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. |
| Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintza edo ez-egiteen ondorioz kontratua behar bezala ez gauzatzeko arriskurik badago, administrazioak beharrezkotzat jotako neurriak hartzeko eska dezake, lanak ondo egitea lortzeko edo lanak ondo egiten berriz hasteko. | | Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. |
| **23. klausula. Betekizunak: zerga-sistema, ingurumena babestea, enplegua, lan-baldintzak eta desgaitasunak dituen pertsona-portzentaje jakin bat kontratatzea** | | **Cláusula 23.- Obligaciones relativas a la fiscalidad, protección del medio ambiente, empleo y condiciones laborales y de contratar a un porcentaje específico de personas con discapacidad.** |
| Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren, desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneko arriskuen prebentzioaren gainean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez; hori, laneko arriskuak prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hura arautzeko eta garatzeko | | El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de seguridad social, de integración social de minusválidos y de prevención de riesgos laborales, conforme a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y sus normas reglamentarias |

| | | |
|---|---|---|
| arauetan ezarritakoaren arabera.<br><br>Agiri honetako 2. eranskinean jasotako proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz adierazi behar da eskaintzan kontuan hartu direla, batetik, zerga-sistemaren, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi 2017ko SPKLko 149. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar ez denik; artikulu hori normalak ez diren edo neurrigabeak diren balioak dituzten eskaintzak egiaztatzeari buruzkoa da.<br><br>**24. klausula. Kontratistari eskatzeko moduko betekizun, gastu eta zergak**<br><br>Kontratistaren kontura izango dira, batetik, kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta eskritura publikoa izatea erabakitzen badu; eta bestetik, toki-erakundeari ez dagozkion eta kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren lizentzia eta baimenak.<br><br>Halaber, enpresak kontratua betetzeko egin beharreko gastuak ordainduko ditu: gastu orokor eta finantzarioak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, materiala, instalazioak, haren ardurapean dauden langileen ordainsariak, egiaztapenak eta entseguak, tasak eta zergak, BEZ, jarduerari dagokion zerga eta kontratuak irauten duen bitartean hura gauzatzeko gainerako gastuak. Gastu horiek guztiak, beraz, ezin dira partida bereizi gisa egotzi.<br><br>Kontratistak isilpean gordeko du kontratua gauzatzen duenean eskuratzen duen informazio konfidentzial guztia.<br><br>**25. klausula. Gauzatze-baldintza sozial bereziak (2017ko SPKLko 202. artikulua)** | | y de desarrollo.<br><br>En el modelo de proposición económica que figura como Anexo 2 al presente pliego se hará manifestación expresa que se han tenido en cuenta en sus ofertas las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 149 de la LCSP 2017 sobre verificación de las ofertas que incluyan valores anormales o desproporcionados.<br><br>**Cláusula 24.- Obligaciones, gastos e impuestos exigibles al contratista**<br><br>Son de cuenta del contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública, así como de cuantas licencias, autorizaciones y permisos que no dependan de esta Entidad Local y que procedan en orden a ejecutar correctamente el objeto del contrato.<br><br>Asimismo vendrá obligado a satisfacer todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA, el impuesto que por la realización de la actividad pudiera corresponder y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo, sin que por tanto puedan ser éstos repercutidos como partida independiente.<br><br>El contratista deberá respetar el carácter confidencial de la información a que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato.<br><br>**Cláusula 25.- Condiciones especiales de ejecución (art. 202 LCSP 2017) de tipo social.** |

- Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.
- Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.
- Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea.

**26. klausula. Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintza bereziak**

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten araudietan arautua, besteak beste honako hauetan: Beasaingo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, 2014ko apirilaren 3ko osoko bileran onartua; eta plan horretako hizkuntza-irizpideak zehazteko akordioa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko azaroaren 26an onetsia.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso behar dituzten zehazpenak ezartzen ditu, besteak beste honako hau: “18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen”. Beraz, herri-administrazioen eta haien erakunde autonomoen kontratazio-agiriek klausula berezi bat eduki behar dute, zehazteko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 18.d artikuluan ezarritako zehazpenak aplikatu behar diren ala ez.

Hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea nahitaez bete behar da, zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Hauek dira kontratuaren hizkuntza-betekizunak:

Administrazioarekin:

- Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.
- Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.
- Favorecer la formación en el lugar de trabajo.

**Cláusula 26.- Condiciones especiales de ejecución en materia lingüística.**

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros, el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Beasain, aprobado en sesión plenaria el 3 de abril de 2014, y el acuerdo de fijación de los criterios lingüísticos de dicho plan, adoptado con fecha de 26-11-2015 por la Junta de Gobierno Local.

El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su artículo 18 establece las determinaciones que los planes de normalización del uso del euskera deben recoger, entre ellas la siguiente: "18 d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente". En consecuencia, los pliegos de contratación de las administraciones públicas y sus organismos autónomos contendrán una cláusula que especifique en cada caso si deben aplicarse o no las determinaciones establecidas por el artículo 18.d) del Decreto 86/1997, de 15 de abril.

Se deberá cumplir obligatoriamente el régimen de la doble oficialidad lingüística, las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

Las obligaciones lingüísticas del contrato serán las siguientes:

Con la Administración:

| | | |
|---|---|---|
| -Enpresaren eta administrazioaren arteko harremanak, hala ahozkoak nola idatzizkoak (kontratua, faktura…), euskaraz izango dira. Kontratistak kontratuaren xede diren proiektu, txosten eta lanak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu behar ditu.<br><br>Herritarrekin:<br><br>-Ahozko harremanetan (telefonoz, aurrez aurre…) herritarrei lehen hitza euskaraz egingo zaie. Jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta gainerako agiriak) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, udal-ordenantzaren arabera; eta, betiere, herritarrari hark aukeratutako hizkuntzan egitea ziurtatu behar da. | | -Las relaciones de la empresa con la Administración, tanto verbales como escritas (contrato, factura,…) serán en euskara. El contratista debe presentar los proyectos, informes o trabajos que sean objeto del contrato en euskara y castellano.<br><br>Con los ciudadanos:<br><br>-A la hora de atender verbalmente a los ciudadanos (por teléfono, de forma presencial,..) la primera palabra será en euskara. Las notificaciones y comunicaciones (impresos, notas, avisos, horarios, facturas y demás documentación) serán en euskara o en euskara y castellano, conforme a la Ordenanza Municipal y siempre habrá que garantizar que se responde en el idioma elegido por el ciudadano. |
| **27. klausula. Datu pertsonalak babesteko gauzatze-baldintza bereziak**<br><br>Kontratua egiteko datu pertsonalak behar badira, kontratistak SPKLko hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren gainean ezarritakoa bete beharko du. | | **Cláusula 27.- Condiciones especiales de ejecución en materia de protección de datos de carácter personal.**<br><br>En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Trigésimo Primera de la LCSP, en relación con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y su normativa de desarrollo. |
| **28. klausula. Kontratistaren erantzukizuna kontratua gauzatzerakoan besteri eragindako kalteetan**<br><br>Kontratista izango da kontratua gauzatzerakoan egiten diren jardueren ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, SPKLko 196. artikuluan zehaztu bezala. | | **Cláusula 28.- Responsabilidad de la contratista por los daños causados a terceros durante la ejecución del contrato.**<br><br>La empresa contratada será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017. |
| **29. klausula. Kontratua aldatzea**<br><br>Araubideari dagokionez, bete behar dira, batetik, 2017ko SPKLko 190., 191. eta 203-207 artikuluak eta hirugarren xedapen gehigarria; eta bestetik, HAKLEOko 97. eta 102. artikuluak. | | **Cláusula 29.- Modificaciones del contrato.**<br><br>En lo concerniente a su régimen se estará a lo dispuesto en los artículos 190,191, 203 a 207 de la LCSP 2017 y la disposición adicional tercera de la LCSP 2017; y, en los artículos 97 y 102 del RGLCAP. |

| | |
|---|---|
| **30. klausula. Bermea jasotzea eta bermearen epea**<br><br>Kontratuaren xedea gauzatzeaz amaitu eta gehienez hamabost egunera bermea jasotzeko ekitaldi formala egingo da; ekitaldi horretan kontratistak zerbitzuaren behin betiko txostena eta kontratuaren egikaritzearen inguruko agiri eta datu guztiak aurkeztuko ditu.<br><br>Halaber, bermealdia urtebetekoa izango da, harrera formala egindako egunetik kontatzen hasita. Bermea ez da bueltatu eta iraungiko bermealdia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte edo kontratua baliogabetu arte, betiere erantzulea kontratista ez bada.<br><br>Bermealdian, kontratista izango da egindako lan edo prestazioen huts eta akatsen erantzulea.<br><br>Bermealdia amaitu ondoren, administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, kontratistak erantzule izateari utziko dio eta eratutako bermea bueltatuko zaio edo kauzio-abal edo -asegurua indargabetuko da.<br><br>Itzultzeko akordioa bermealdia amaitu eta bi hilabeteren buruan onetsi behar da eta jakinarazi behar zaio interesdunari.<br><br>**31. klausula. Kontratistarentzako zigorrak, kontratua ez betetzeagatik**<br><br>Kontratatutako enpresak ez badu betetzen, hari egozteko moduko arrazoiengatik, agiri teknikoan eta agiri honetako 25., 26. eta 27. artikuluetan jasotako prestazioen egikaritze partziala, administrazioak erabaki dezake kontratua iraungitzea (hori erabakiz gero kontratistak bermea galduko du) edo zigorra jartzea, adierazitako lau kasuetan, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa.<br><br>**32. klausula. Azpikontratatzea eta prozeduran ordeztea**<br><br>Azpikontratatzea: ez da onartzen. | **Cláusula 30.- Recepción y plazo de garantía**<br><br>En el plazo máximo de 15 días desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma, que se llevará a cabo mediante la entrega del informe definitivo del servicio, así como de cuantos documentos y datos disponga el contratista, relativos a la ejecución del contrato.<br><br>Asimismo, se establece un plazo de garantía de 1 año a contar desde la fecha de recepción formal. La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato, o hasta que se declare la resolución de este sin culpa del contratista.<br><br>Durante este plazo de garantía la contratista será responsable por los defectos o vicios que puedan manifestarse en los trabajos o prestaciones realizadas.<br><br>Transcurrido dicho plazo sin objeciones por parte de la Administración quedará extinguida la responsabilidad del contratista y se procederá a la devolución de la garantía constituida o se cancelará el aval o seguro de caución.<br><br>El acuerdo de devolución deberá adoptarse y notificarse al interesado en el plazo de dos meses desde la finalización del plazo de garantía.<br><br>**Cláusula 31.- Penalidades a la empresa contratista por incumplimiento**<br><br>Cuando la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el pliego técnico y las señaladas en las cláusulas 25, 26 y 27 de este pliego, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de una penalidad, en cada uno de los cuatro supuestos señalados, no superior al 10% del precio del contrato.<br><br>**Cláusula 32.- Subcontratación y sucesión en el procedimiento**<br><br>Subcontratación: No se admite. |

| Euskara | | Castellano |
|---|---|---|
| Prozeduran ordeztea:<br><br>Prozedura izapidetzerakoan eta kontratua formalizatu aurretik enpresak beste batekin bat egiten badu, zatitzen bada edo enpresa-ondarea edo jardueraren adar bat eskualdatzen badu, enpresa lizitatzaileak edo hautagaiak prozeduran duen tokia sozietate xurgatzaileak, bat egitetik sortzen denak, zatiketaren onuradunak edo enpresa-ondarea edo jarduera-adarra eskuratu duenak hartuko du. Hori, betiere, ahalmen-baldintzak betetzen baditu eta ez badu kontratatzeko debekurik, eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu, administrazio-baldintza partikularren agiri honetan esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzen arabera. | | Sucesión en el procedimiento:<br><br>Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la formalización del contrato se produce una operación de fusión, escisión, transmisión del patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, le sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia y clasificación en las condiciones exigidas en este pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación. |
| **33. klausula. Kontratua amaitzeko arrazoiak**<br><br>Hauek dira kontratua amaitzeko arrazoiak, SPKLko 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gain:<br><br>a) Agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritako betekizun eta baldintzak ez betetzea.<br>b) Esleipendunak kontratuaren xede diren prestazioak arrazoi teknikoengatik ezin betetzea.<br><br>Kontratua amaitzeak (bermea galduta ala ez) ez du esan nahi alderdiek zuzenbidez dagozkien kalte-ordainak jasoko ez dituztenik. | | **Cláusula 33.- Causas de resolución del contrato**<br><br>Constituyen causas de resolución del contrato, además de las establecidas en los artículos 211 y 313 de la Ley de Contratos del Sector Público 2017, las siguientes:<br><br>a) El incumplimiento de las obligaciones y condiciones de todo tipo señaladas en éste y en el Pliego de Condiciones Técnicas.<br>b) La imposibilidad técnica de la adjudicataria para cumplir las prestaciones objeto del contrato.<br><br>La resolución del contrato, con o sin pérdida de garantía, se producirá sin perjuicio de las indemnizaciones que a favor de una u otra parte fueren procedentes en derecho. |
| **34. klausula. Administrazioaren eskumenak eta auzitegi eskudunak**<br><br>SPKLn ezarritako muga, betekizun eta eraginak aintzat hartuta, kontratazio-organoak eskumen hauek ditu: kontratu administratiboak interpretatzea, kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzerakoan kontratistari erantzukizunen bat | | **Cláusula 34.- Prerrogativas de la Administración y Tribunales competentes.**<br><br>Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al |

| | | |
|---|---|---|
| egoztea, kontratua etetea, kontratua iraungitzea erabakitzea eta iraungipenaren eraginak zehaztea.<br>Adierazitako eskumenen arabera akordioak adosteko prozeduretan, kontratista jakinaren gainean jarri beharra dago.<br>Hala eta guztiz ere, kasu hauetan ezinbestekoa da Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoan haren baliokide den aholkularitza-organoaren erabakia: | | contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.<br>En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas señaladas, deberá darse audiencia al contratista.<br>No obstante lo anterior, será preceptivo el dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva en los casos de: |
| a) Kontratua interpretatzea, baliogabetzea eta amaitzea, kontratistak aurka egiten badu. | | a) Interpretación, nulidad y resolución, cuando se formule oposición por parte del contratista. |
| b) Kontratua aldatzea, aldaketa horiek administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusita ez daudenean eta, betiere, zenbatekoa, bereiz edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko hogei baino handiagoa bada (BEZ gabe). | | b) Modificaciones del contrato, cuando no estuvieran previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su cuantía, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido. |
| c) Administrazioari egindako erreklamazioak, administrazioak kontratuzko erantzukizunen bat badu, baldin eta eskatutako kalte-ordainak 50.000 euro edo gehiagokoak badira. | | c) Reclamaciones dirigidas a la Administración con fundamento en la responsabilidad contractual en que esta pudiera haber incurrido, en los casos en que las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros. |
| Kontratazio-organoak adostutako akordioek administrazio-bidea amaituko dute eta betearazleak izango dira berehala.<br>Kontratuaren interpretazio, aldaketa eta iraungipenaren inguruan eta iraungipenaren eraginen gainean sortzen diren eztabaidak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoak adostutako akordioak administrazio-bidea amaituko dute eta betearazleak izango dira berehala. Akordioaren kontra berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, adostu duen organoaren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa medio inpugnatu daiteke, jurisdikzio hori arautzen duen legean ezarritakoari jarraikiz. | | Los acuerdos que adopte el órgano de contratación pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.<br>Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación y resolución del contrato, y efectos de ésta, serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa, y serán inmediatamente ejecutivos, pudiendo ser recurridos potestativamente en reposición ante el mismo órgano que los dictó, o ser impugnado mediante recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción. |
| **35. klausula. Lizitazioa zuzentzen duen dokumentazioaren kontrako errekurtsoen araubidea** | | **Cláusula 35.- Régimen de recursos contra la documentación que rige la licitación.** |
| Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa | | Se podrá interponer recurso contencioso-administrativo, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la |

| | | |
|---|---|---|
| arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Dena den, interesdunak berraztertzeko errekurtsoa jar dezake Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean eta, hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharrik, berraztertzeko errekurtsoaren berariazko edo usteko ebazpena egin bitartean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoari jarraikiz. Horrek guztiak ez du esan nahi interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzea erabaki ezin duenik. | | Jurisdicción Contencioso-administrativa. No obstante, el interesado podrá optar por interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en cuyo caso no cabrá interponer el recurso contencioso-administrativo anteriormente citado, en tanto no recaiga resolución expresa o presunta del recurso de reposición, de conformidad con lo establecido en los arts. 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sin perjuicio de que el interesado pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente. |
| 1. ERANSKINA: EKAB | | ANEXO 1: DEUC |
| 2. ERANSKINA. Proposamen ekonomikoaren eredua, C gutun-azalean sartzeko | | ANEXO 2. Modelo de proposición económica a incluir en el sobre C |
| ........................................................................................................ jaunak/andreak (Helbidea: …........................................................................ .. NAN: ........................ Telefonoa: ................................................................ Helbide elektronikoa:<br>……………………………………………) | | D./Dña...................................................................<br>...........................con domicilio en............................<br>...........................<br><br>CP...................., DNI nº......................., Teléfono.................................................................<br>Dirección de correo electrónico…………………………………………. |
| erabateko ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmenarekin, bere izenean edo .......................................... (r)en ordezkari gisa (IFK: ............................... Helbidea: .............................................................), | | en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de...........................................<br>CIF..............................<br>con domicilio en ........................................................... |
| Euskadiko Kontratazioaren Plataforman ZIRKULAZIOKO ETA TAOKO ISUNEN ZERBITZUA (BORONDATEZKO ETA NAHITAEZKO BILKETA) ETA BEASAINGO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE | | Tras conocer la licitación convocada en la Plataforma de Contratación de Euskadi la licitación para la CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS LABORES DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL |

| | | |
|---|---|---|
| AUTONOMOEN ZERGA ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUEN NAHITAEZKO BILKETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO deitutako lizitazioaren berri jaso ondoren, honako hau aitortzen dut:<br><br>1) Kontratua prezio hauen truke gauzatzeko konpromisoa hartzen dut:<br><br>C) <u>Borondatezko bilketa:</u><br><br>A.1. Kobratutakoaren % …, gehienez.<br><br>D) <u>Nahitaezko bilketa:</u><br><br>B.1. Eskudirutan kobratutako zenbatekoen printzipalaren % …, gehienez, BEZ gabe.<br><br>B.2. Epe exekutiboan eskudirutan kobratutako berandutze-interesen % …, gehienez (BEZ gabe), esleipendunak kalkulatzeko, likidatzeko, jakinarazteko eta kobratzeko egindako kudeaketa-lanen ordain gisa.<br><br>B.3. Gauzaz kobratuz gero, aurreko portzentajeak aplikatuz dagokion zenbatekoa, baina bi kontzeptuen baturaren muga maximo honekin: 18.000,00 euro (BEZ gabe).<br><br>Kostuen zenbatekoak Udalaren kontura izango dira.<br><br>2) Kontratua gauzatzeko arduradunak Udalari, hark eskatzen dionean, ……. egunen buruan zuzenean laguntzeko konpromisoa hartzen dut.<br><br>3) Irakurri ditut baldintza teknikoen agiria, administrazio-baldintza partikularren agiria eta kontratua arautzen duten gainerako dokumentuak, eta ontzat hartzen ditut, oso-osorik.<br><br>4) Ordezkatzen dudan enpresak irekiera, instalazio eta funtzionamenduaren gainean indarrean dagoen araudiko betekizun eta | | SERVICIO DE LAS MULTAS DE TRÁFICO Y OTA (RECAUDACIÓN VOLUNTARIA Y EJECUTIVA), ASÍ COMO LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS TRIBUTOS Y DE OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS, declaro:<br><br>1º) Que me comprometo a su ejecución a los siguientes precios:<br><br>C) <u>Recaudación en vía voluntaria</u>:<br><br>A.1.- Hasta el … % de lo cobrado.<br><br>D) <u>Recaudación en vía ejecutiva</u>:<br><br>B.1.- Hasta el … % sobre el principal de las cantidades cobradas en metálico, excluido IVA.<br><br>B.2.- Hasta el … % de los intereses de demora cobrados en metálico en período ejecutivo, en concepto de contraprestación por la gestión realizada por el adjudicatario para su cálculo, liquidación, notificación y cobro (IVA excluido).<br><br>B.3.- En caso de que el cobro se produzca en especie, el importe a percibir será el correspondiente al obtenido por aplicación de los porcentajes anteriores, pero con el límite máximo por las suma de ambos conceptos, de 18.000,00 euros (IVA excluido).<br><br>Los importes en concepto de costas correrán a cargo del Ayuntamiento.<br><br>2º) Que me comprometo a que el responsable de la ejecución del contrato asista personalmente al Ayuntamiento, cuando, eventualmente, éste se lo requiera, en el plazo de ……. días.<br><br>3º) Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.<br><br>4º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, |

| | | |
|---|---|---|
| eginbehar guztiak betetzen ditu.<br><br>5) Eskaintzan kontuan hartu ditugu, batetik, zerga-sistemaren, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Hala, hori guztia beteko dudala hitzematen dut.<br><br>..............................n, 20.... (e)ko<br>...................................... ren .......... (e)an.<br><br>Sinadura | | instalación y funcionamiento.<br><br>5º) Manifiesto que en la oferta, se han tenido en cuenta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y que me obligo al cumplimiento de todo ello.<br><br>En........................, a..........<br>de…........................de 20......<br><br>Firma |
| **Gobernu Batzordeak onartua, 2018-04-26an egindako bileran.** | | **Aprobado en la sesión celebrada por la Junta de Gobierno Local, el 26-04-2018.** |